EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# EUSKO JAURLARITZA ETA ORACLE IBERICA, S.R.L. ENPRESAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO HITZARMEN MARKOA

# ACUERDO MARCO DE COLABORACION ESTRATEGICA ENTRE EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO Y ORACLE IBERICA, S.R.L.

ORACLE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ORACLE

Vitoria-Gasteizen, .2006ko azaroaren 28an.

**Alde batetik,** Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Administrazio eta Zerbitzu sailburuordea den Carmelo Arcelus Múgica jauna, aurrerantzean **"Eusko Jaurlaritza"**.

**Eta beste aldetik,** Miguel Milano Aspe jauna, ORACLE IBERICA, S.R.L. enpresaren lehendakariorde zuzendari nagusia eta ahalduna dena, haren izenean eta ordezkaritzapean. Enpresaren IFK B 78361482 da eta Madrilgo Las Rozas-eko José Echegaray kaleko 6 zenbakiko B eraikinean du bere egoitza soziala. Aurrerantzean **"ORACLE"**.

Bi aldeek, bakoitzak parte-hartzen duen izaeran,

## AZALDU DUTE

I.- Dagozkion eginkizun eta eskumenen esparruan, Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan, berrikuntzari eta garapen teknologikoari lehentasunezko arreta ematen ari diela. Hori, denboran zehar, eta geroago jarraitutasuna izan duten, programa, plan estrategiko eta ekimenen (elkarren segidako ITPak, Euskadi Informazio Gizartean Plana, etab.) diseinuan eta horiek martxan jartzean gauzatu egin da, guzti horiek teknologia berriak eta informazio sistemak bultzatu eta sustatzera zuzenduak izan direla. Izan ere, horiek dira faktore erabakigarrienetakoak informazio eta ezagutzaren gizartea eraikitzearekin loturiko erronka berriei arrakastazko baldintzetan aurre egiteko, ondorengo egintza hauen bitartez: zerbitzua berrituz eta prozesuen informazioaren aldeko apustua egiten duen e-administrazio eredu eraginkor bat garatzeko eta ezartzeko erakunde autonomoen eraginkortasuna gehituz; barne kostuak aurreztuz; komunikaziorako kanalen elkarreragina sustatuz eta gizartearekiko harreman zuzenago eta eraginkorragoa bultzatuz, Euskadi teknologiaren abangoardiaren lehen lerroan jarri duena, hain zuzen; ahaleginak eta baliabideak optimizatuz

Vitoria-Gasteiz, 28 de noviembre de 2006

**De una parte** D. Carmelo Arcelus Múgica, en su calidad de Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco, en adelante **"Gobierno Vasco"**.

**Y de otra parte**, D. Miguel Milano Aspe, en nombre y representación, como Vicepresidente Director General y apoderado de la mercantil ORACLE IBERICA, S.R.L., con C.I.F. B 78361482 y con domicilio social en Las Rozas de Madrid, c/ José Echegaray, 6 Edificio B, en adelante **"ORACLE".**

Ambas partes, en el concepto en que respectivamente intervienen,

## EXPONEN

I.- Que, en el marco de las funciones y competencias que le corresponden, el Gobierno Vasco, viene prestando una atención preferente a la innovación y al desarrollo tecnológico en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que se ha venido plasmando a lo largo del tiempo en el diseño y ejecución de diferentes programas, planes estratégicos e iniciativas (sucesivos PITs, Plan Euskadi en la Sociedad de la Información, etc.) con continuidad en el tiempo dirigidas a impulsar y promover las nuevas tecnologías y los sistemas de información como uno de los factores críticos para afrontar en condiciones de éxito los nuevos retos asociados a la construcción de la sociedad de la información y el conocimiento, modernizando el servicio e incrementando la eficacia de las instituciones autónomas en el desarrollo e implantación de un modelo eficaz de e-administración que apuesta por la informatización de los procesos, ahorrando costes internos, fomentando la interactividad de los canales de comunicación y potenciando una relación más directa y eficiente con la sociedad, que ha situado a Euskadi en primera línea de la vanguardia tecnológica, optimizando esfuerzos y recursos

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ORACLE

eta sistemen bateragarritasuna eta komunikagarritasuna ahalbidetuko duten estandarretan oinarrituriko konponbiderik aproposenak mahaigaineratuz; konplexutasuna murriztuz eta eskalako ekonomiak sustatuz; eta mota honetako beharrei kalitatezko erantzuna ematea bermatuko duen inbertsio-ahalegina eginez, errentagarritasuna eta Euskadiko interes orokorretarako zerbitzua diren irizpideekin batera. Hori guztia, informazio-sistemen arloan, Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio-egituraren aldetik informazioaren teknologia berrien erabilerarekiko sustapen irmo eta laguntza kualitatibo batean bihurtzen da.

II.- ORACLE, Kaliforniako (AEB) Redwood Shores-en egoitza duen ORACLE CORPORATION (ORACORP) elkarteak gehiengoz partaidetutako, zuzenean ala zeharka, merkataritza-konpainia bat dela. Horren helburu soziala ordenagailu programen gaineko lizentziak merkaturatzean eta osagarrizko zerbitzu jakin batzuk ematean datza. Bere estrategia orokorrean, interes berezia erakusten du alor publikoko teknologiaren gaineko beharrei erantzuna ematen, estandar irekietan eta aurrez integratutako eta ulergarritasun anitzeko negozio-aplikazioetan oinarrituta. Estandarren garapenarekin konprometituta dago estandarretako nazioarteko erakunde garrantzitsuenetan parte-hartuz eta kode irekia edo 'open source' (Linux, PHP, Apache, Eclipse, etab.) izeneko teknologien garapen, proba, optimizazio eta euskarrian baliabide garrantzitsuak inbertituz. Guzti hori segurtasun gaietan apustu serio eginez, horretarako 22 baino gehiago segurtasun-ebaluazioak dituela (informazio teknologien segurtasuna ebaluatzeko irizpide komuneko ISO-15408 araua). Enpresa honentzat alor publikoa da bere jarduerarako eremu nagusia, eta hori adierazten da bai administrazio-sistema publikoarekin duen lankidetza osoa eta etengabe batez, e-administrazioko eta kudeaketako programen garapenerako euskarri eta laguntza sustapenarekin, bai aurrerabideari eta, azken finean, oraingo garai lehiatsuetan garapen ekonomikoari lotuta dauden teknologia berrien erabileraren hedapen eta sustapenerako

y estudiando y proponiendo las soluciones más idóneas basadas en estándares que hagan posible la compatibilidad y comunicabilidad de los sistemas, reduciendo la complejidad y potenciando economías de escala, y realizando el esfuerzo inversor que garantice una cobertura de calidad de las necesidades de esta naturaleza, en conjunción con los criterios de rentabilidad y de servicio a los intereses generales de Euskadi, lo que en el área de los sistemas de información se traduce en un decidido fomento y apoyo cualitativo al uso de las nuevas tecnologías de la información por parte del entramado administrativo de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

II.- Que ORACLE es una compañía mercantil mayoritariamente participada, directa o indirectamente, por la sociedad, con sede en Redwood Shores, California (E.E.U.U.), ORACLE CORPORATION (ORACORP), cuyo objeto social consiste en la comercialización de licencias de uso sobre programas de ordenador y en la prestación de determinados servicios complementarios, manifestando, dentro de su estrategia general, un interés especial en atender las necesidades en materia de tecnología del sector público con una potente combinación de tecnología basada en estándares abiertos y aplicaciones de negocio pre-integradas y multicomprensivas, comprometiéndose con el desarrollo de estándares mediante la participación en las más importantes organizaciones internacionales de estándares e invirtiendo recursos significativos en el desarrollo, prueba, optimización y soporte de tecnologías de código abierto u 'open source'(Linux, PHP, Apache, Eclipse, etc.), con una apuesta seria en materia de seguridad, contando en este sentido con más de 22 evaluaciones de seguridad (norma ISO-15408 de criterios comunes para la evaluación de la seguridad de las tecnologías de la información), y para la que el sector público representa su más grande sector de actividad, lo que se traduce en una colaboración completa y constante con el sistema administrativo público mediante la promoción soporte y ayuda al desarrollo de programas de e-administración y de gestión así como mediante la cooperación

jardueran elkarlanean arituz ere, administrazioak bere zerbitzu-eginkizuna betetzen duen egitura sozio-ekonomikoan.

en la actividad de transmisión y fomento, en el entramado socio-económico en el que la administración despliega su función de servicio, del uso de las nuevas tecnologías a las que queda asociado el progreso y, en suma, el desarrollo económico en los competitivos tiempos actuales.

III.- Eusko Jaurlaritzaren e-administrazio proiektuetan ORACLEk Eusko Jaurlaritzarekin duen lankidetzarako harremana –EJIE Baltzu Publikoak 1993an eginiko lehenbiziko kontratazioez gero hasitakoa, hain zuzen-gorenera heltzen dela 2006ko uztailean EJIEk Oraclearena den Datu-baseen eta Middleware-aren teknologia Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorrera eta Erakunde Administraziora eta baita foru administraziora zein toki administraziora ere hedatzeko aukera ematen duen kontratua sinatzen duenean. Horrela, Eusko Jaurlaritza ORACLE delakoaren erreferentzi garrantzitsuenetariko eta berritzailenetariko bat bihurtu da eta ORACLE Eusko Jaurlaritzaren bazkide teknologikoa.

III.-Que, en Julio de 2006, la relación de colaboración de ORACLE con el Gobierno Vasco –iniciada a partir de las primeras contrataciones realizadas por la Sociedad Pública EJIE en 1993- en los proyectos de e-administración del Gobierno Vasco, culmina con la firma de un contrato por EJIE que permite extender la tecnología de Oracle de Base de datos y Middleware a la Administración General y Administración Institucional del Gobierno Vasco, así como a la Administración Foral y a la Administración Local de la Comunidad Autónoma del País Vasco, convirtiendo al Gobierno Vasco en una de las referencias más importantes e innovadoras de ORACLE y a ORACLE en socio tecnológico del Gobierno Vasco.

IV.- Bi aldeek, beraien lankidetzarako jardueren esparruan, Eusko Jaurlaritzak adierazitako arloetan dituen helburuak lortzea bizkortu eta ahalbideratuko duen jardute-marko bat hedatzeko interesa dutela. Horretarako, erraztasun eta laguntza batzuk eskuragarri jarriko dituzte, aurrerago zehaztuko den bezala.

IV.-Que ambas partes están interesadas en extender, en el ámbito de sus actividades de cooperación, un marco de actuación que agilice y posibilite la consecución por Gobierno Vasco de sus objetivos en las áreas descritas, poniendo a su disposición un conjunto de facilidades y apoyos a tal efecto en la forma que más adelante se expondrá.

V.- Lankidetza hori nola gauzatuko denari buruz adostasuna lortu dutenez gero, elkarrenganako interesaren mesedetan, gauzatu egiten dutela, oinarri direla ondorengo

V.-Que habiendo llegado a un acuerdo en cuanto a la forma en que se substanciará dicha cooperación, ambas partes, en aras del mutuo interés, lo llevan a efecto con sujeción a las siguientes

## HITZARTUTAKOAK

**Lehenengoa:-** HITZARMEN HONEN XEDEA

Azalpenerako atalean deskribatu den inguru informatikoan jardute-programak elkarrekin garatzeko aldeek duten borondatea da. Hori gauzatu egingo da hitzarmen honen gehigarri

## ESTIPULACIONES

**Primera .-** OBJETO DEL PRESENTE ACUERDO

Lo constituye la voluntad de las partes de desarrollar conjuntamente programas de actuación diversos en el entorno informático que ha quedado descrito en el apartado expositivo, lo que se llevará

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ORACLE

izango diren protokoloen bidez eta horien edukia eta garrantzia ondorengo arloen araberakoa izango da, egiten den zerrendatze honek horiek guztiak agortzeko asmorik ez duela:

1.- Eusko Jaurlaritzaren e-Administrazioaren egitasmoetako garapen eta bilakaeran eta baita Jaurlaritzaren sail eta erakundeen inguru fisikoan ezarritako garapen teknologiko informatikoan ere parte hartzea.

2.- Sistema irekien Teknologiaren erabileran 'Praktika Hobeak' zabalduko dituen eta Jaurlaritzaren eta toki administrazioaren etorkizunerako egitasmoetan 'Quality Assurance' delakoaren zerbitzuak betearaziko dituen Oracle Egitasmoen Bulego bat eratzeko eta inplementatzeko aldeen lankidetza.

3.- Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren eskumen-eremura atxikitako egitasmoetatik eratortzen diren euskarri teknikoen zerbitzuak emateko eskakizunak ORACLEaren aurrean ardaztu eta bideratuko dituen Euskarri-zerbitzu aurreratuen Oracle Bulegoa eratu eta inplementatzeko bi aldeen lankidetza.

5.- Eusko Jaurlaritzako eta toki administrazioko langile teknikoentzako praktiketan prestakuntza programak, aurreko ataletan jasotako edozein jarduerekin lotuta.

6.- e-Administrazio egitasmoei beraien garapen eta ustiapen zerbitzuak eskaintzen dizkieten IKT alorreko enpresentzako Egiaztapen Programak.

7.- Etorkizunean ager litezken gainontzeko lankidetzarako jarduera edo arloak, baldin eta horien garapenean bi aldeek interesa badute.

Hemen ezarritako eraginetarako, aldeek, halaber, honako hau hitzartu dute:

a).-ORACLEk Eusko Jaurlaritzaren

a efecto mediante la extensión de protocolos adicionales al presente acuerdo marco cuyo contenido y alcance quedará referido a las áreas siguientes, sin que la enumeración que a continuación se realiza pretenda agotar la totalidad de las mismas:

1.- Participación en el desarrollo y evolución de los proyectos de la e-Administración del Gobierno Vasco, así como en el desarrollo tecnológico informático establecido en el entorno físico de los Departamentos y organismos del Gobierno.

2.- Colaboración de las partes en la constitución e implementación de una Oficina de Proyectos Oracle que divulgue las 'Mejores Prácticas' en la utilización de Tecnología de sistemas Abiertos, y ejecute servicios de 'Quality Assurance' en los futuros proyectos del Gobierno y Administración Local.

3.- Colaboración de las partes en la constitución e implementación de una Oficina de Servicios Avanzados de Soporte Oracle que focalice y canalice frente a ORACLE los requerimientos de prestación de servicios de soporte técnico, emanados de los proyectos adscritos al ámbito de competencia de la Dirección de Informática y Telecomunicaciones.

5.- Programas de formación en prácticas para el personal técnico del Gobierno Vasco y Administración Local en conexión con cualquiera de las actividades previstas en los apartados anteriores.

6.- Programas de Certificación para las Empresas del Sector TIC que ofrezcan sus servicios de desarrollo y explotación a los proyectos e-Administración.

7.- Cualesquiera otras actividades o áreas de colaboración que pudieran plantearse en el futuro y en cuyo desarrollo estuvieran interesadas las partes.

A los efectos aquí establecidos, acuerdan asimismo las partes que:

a).-ORACLE gozará de la consideración de

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ORACLE

erreferentziazko ohiko hornitzaile izaera izango du.

b).-Eusko Jaurlaritzak eta III. azalpenean aipatutako erakunde guztiek, ORACLEaren bezero estrategikoak diren heinean, ORACLE softwarearen programen gaineko erabilera eta zerbitzurako lizentziak erosterakoan baldintza berezien onura izango dute, aurreko III. azalpenak aipatzen duen 2006ko uztailean sinatutako kontratuan (C Eranskina) ezarritako baldintzapetan.

c).-ORACLEk, ITen arloko Eusko Jaurlaritzaren bazkide teknologikoa eta hornitzaile estrategikoa den heinean, honen eskaerei euskarri eta laguntza berezi eta lehentasunezkoak emango dizkie, merkataritza, marketing eta euskarri teknikoko osagarrizko jarduerak garatuz, eta Eusko Jaurlaritza gonbidatuko du, IKTekin loturik dauden beronen baltzu eta erakunderen bitartez, ORACLEk euskal gizartean antola dezan ITen zabalkuntzarako gertakizunetan parte hartzera.

Hitzartuta ere geratzen da, gorago jasota dauden egon litezkeen lankidetzarako-arloetan jardute-programak moldatu eta aplikatzea ondoz ondoko gehigarrizko protokoloen harpidetzaren bitartez gauzatuko dela. Azken horietan zehatz-mehatz zehaztuko dira dagokion arloan izan beharreko lankidetzaren nondik norakoa, horren helburuak, betearazteko era eta, horretarako, erakunde bakoitzak egin beharreko ekarpenak baita horien baldintzak ere.

**Bigarrena.-** HITZARMEN MARKO HONEN INDARRALDIA

Hitzarmen honek hiru urteko epean zehar izango du bere eragina, hura sinatzen denetik kontatzen hasita, eta epea bukatzen denean automatikoki urtebeteko epetan luza daiteke, bi aldetako edozeinak denuntziatzen ez badu. Honelakoetan, beste aldeak honen berri jaso behar izango du, gutxienez hiru hilabete lehenago.

proveedor habitual de referencia del Gobierno Vasco.

b).-Gobierno Vasco y el conjunto de entidades mencionadas en el Expositivo III anterior, en su condición de clientes estratégicos de ORACLE, se beneficiarán de la aplicación de condiciones especiales con ocasión de la adquisición de licencias de uso y servicios sobre Programas de software ORACLE en los términos establecidos en el contrato formalizado el mes de Julio de 2006 (Anexo C) a que se refiere el expositivo III anterior.

c).-ORACLE, en su condición de socio tecnológico y proveedor estratégico de Gobierno Vasco en el área de las TI, dedicará un apoyo y asistencia preferente y especial a sus peticiones, mediante el desarrollo de actuaciones complementarias de comercialización, marketing y soporte técnico, invitando al Gobierno Vasco, a través de sus Sociedades y Organismos vinculados a las TIC, a participar en los eventos de divulgación de TI que ORACLE desarrolle en el conjunto de la Sociedad Vasca.

Queda igualmente acordado que el desenvolvimiento y aplicación de los diversos programas de actuación en las posibles áreas de cooperación recogidas más arriba se llevará a efecto mediante la suscripción de sucesivos protocolos adicionales, en los que se procederá a determinar de forma concreta el alcance de la cooperación en el área correspondiente, los objetivos de la misma, la forma de ejecución, y las aportaciones a realizar a tal fin por cada Entidad así como las condiciones de éstas.

**Segunda.-** PLAZO DE DURACION DEL PRESENTE ACUERDO MARCO

El presente acuerdo extenderá sus efectos por un plazo de tres años a contar desde la formalización del mismo, pudiendo a su conclusión prorrogarse automáticamente por periodos de un año duración salvo denuncia de una cualquiera de las partes la cual habrá de ser notificada a la otra por escrito con al menos tres meses de antelación.

izango du, gutxienez hiru hilabete lehenago.

Hitzarmen Markoa amaitzeak, alabaina, ez die eraginik sortuko, Hitzarmenaren ondorio diren jarduerak izanik, amaiera gertatutako unean betearazten dauden horiei baldin eta, beraien izaerengatik, denboran izaera jarraitua edo segidako traktua izaera ez badute. Hori bi aldeek adostuta erabakiko da.

**Hirugarrena**.- ONDORIOAK

Hitzarmen Marko honek ez die Eusko Jaurlaritzari eta bere erakundeei betebeharrik ezta konpromisorik ere sortzen, ezta ORACLEk eskainitako ondasun eta zerbitzuak eskuratu eta erosteari dagokienez esklusibotasunik ere. Ondorio horietarako, Eusko Jaurlaritzak indarrean dagoen araudian ezarritakoari helduko dio. Halaber, ORACLEren laguntza Hitzarmen Marko hau garatzeko sinatuko diren akordio edota protokolo gehigarrietan zehaztu eta mugatuko da.

Eta horrela jasota gera dadin, parte-hartzaile guztiek, dokumentu honen edukia bakoitzak irakurri eta jasotakoan berretsi ondoren, zintzo eta zabaltasunez beteko dutela hitzemanez, sinatu eta errubrikatu dute, jatorrizko bi aletan eta ondorio bakarrerako, adierazitako toki eta egunean.

**Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco**

Carmelo Arcelus Múgica

notificada a la otra por escrito con al menos tres meses de antelación.

La finalización del Acuerdo Marco no afectará sin embargo a aquellas acciones derivadas del mismo en curso de ejecución al momento de devenir aquélla que, por su naturaleza, no tengan un carácter continuado en el tiempo o un tracto sucesivo, lo que se determinará por acuerdo de ambas partes.

**Tercera**.- EFECTOS

El presente Acuerdo Marco no genera obligación ni compromiso alguno para Gobierno Vasco y sus instituciones, ni exclusividad alguna, en materia de adquisiciones y compra de bienes y servicios ofrecidos por ORACLE. A estos efectos Gobierno Vasco se ajustará a lo establecido en la normativa vigente. Asimismo, el apoyo de ORACLE se especificará y delimitará en los acuerdos o protocolos adicionales que se suscriban para el desarrollo del presente Acuerdo Marco.

Y para que así conste, todos los intervinientes, luego de leer por sí y ratificarse en el contenido del presente documento, que prometen cumplir fiel y extensamente, lo firman y rubrican por duplicado ejemplar y a un solo efecto en el lugar y fecha indicados.

**ORACLE**

Miguel Milano Aspe